



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Garamendik, bere sailak aurrekontuaren %73,2 dagoaneko gauzatu dauela jakinarazo dau Batzar Nagusien aurrean

Bilbon, 2014ko urriaren 3an

Itziar Garamendi, Herri Lan eta Garraioetako foru diputatua, PP taldeak eskatuta agertu da gaur batzordearen aurrean, bere sailaren aurrekontuen egiterapen egoeraren barri emoteko eta une honetan Lurraldeko hainbat puntutan egiten ari diran errepideetako lan batzuen gaur egungo egoerari buruzko informazioa eskintzeko. 2014ko aurrekontuen barruan dagozan partiden egiterapenari jagokonez, “irailaren 15eko datagaz”, aurrekontuetan jasotakoaren “%73,2” eginda dagoala adierazo dau Aldundiko arduradunak, eta 289 milioi eurotara heltzen dan gastua baimendu dala. Kopuru hori kontuan izanda, ehunekoa %94,03ra igongo litzateke.

AMOREBIETA-MUXIKA

Beste alde batetik, Amorebieta-Muxika ardatz-errepideko eta ahalmen handiko Gerediaga-Elorrio errepideko lanen egoeraren barri be emon dau Garamendik. Lehenengoari jagokonez, “2014ko abuztuaren amaieran, obren nondik norakoa indarrean dagoan aurrekontuaren %46tik gorakoa” zala adierazo dau. Azpimarratu dauenez, obren egoerea, “bere azken fasean dagoan edozein bide azpiegituretan ohikoa dana” da, eta “leku guztietan” ari dira lanean, trazauaren hasieratik (AP-8 eta N-634 errepideen arteko lotunea), Muxikan egiten ari dan BI-635 errepideagaz bat egiten dan lekuraino. Epeei jagokonez, “modu errazoituanbeteten ari dirala” baieztu dau diputatu andreak.

Aire zabalean egiten ari diran lanei jagokonez, bardintze lanak azken fasean dagozala jakinarazo dau Garamendik, eta “udazkeneko eta neguko eguraldiak horretarako aukerea emoten badau”, burutzapen lan horreek 2015eko udabarrian amaitzea aurreikusten dala. Urdinbideko tunelei jagokonez (538 metroko hodi bi), hodi bietan aurrerapeneko faseko %79a eta destroza faseko %58a hondeatuta dago”. Aurreikuspenen arabera, galeriak bukatuta egongo dira datorren urteko “udabarrian edo udan”.

Bizkaiko Batzarretako Herri Lan eta Garraioetako batzordearen aurrean Garamendik jakinarazo dauenez, 3,5 kilometro dituan Amorebieta-Muxika ardatz horrek aldaketa bi izan ditu haserako proiektuagaz alderatuta: 2013an jasandako eguraldi txarraren ondorioz gune askotako laneko plana egokitu behar izan zala “kontratuaren epean edo burutzapeneko epean eraginik izan barik”; eta bestea, lanen prezioa “%7,08” garestitzea eragin dauena, errotonda barri bat egin dala Karmen kaletik Zornotzara, Amorebietara, sartzeko eta aurreikusita egoan beste errotonda bat zabaldu dala.

GEREDIAGA-ELORRIO

Gerediaga-Elorrio errepideari jagokonez, udan “ia puntu guztietan egin dala lan” adierazo dau diputatu andreak, eta Atxondon eta Elorrioren azken faseko lanak “egun gitxi barru hasiko dirala”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Garamendik obra hau be “zaticako epeak eta amaierakoak betetan ari dala” esan dau. Bere aurreikuspenak kontuan izanda, N-636 errepidearen alternatibea izango dan ahalmen handiko errepide hori “2016ko udan” egon daiteke zerbitzua emoten, tuneletan (guztira kilometro biko luzera daukien hodi bi) egin beharreko segurtasuneko probak egin ostean, foru araudiak marketan dauen moduan.

ABEE-UTE-aren esfortzuaren parte handia hondeaketa lanetan zentretan da, eta aldi berean “6 frontetan beharrean dabil”. “Aurrerapen fasearen %77 hondeatu da”, hau da, “594 metro dituan I. tunelaren %98a” eta “1.140 metro dituan II. tunelaren %65a”.

Tunel horreetan gauez egiten diran leherketetarako baimenak argitzeko eskatuz PP eta EH Bildu taldeek egindako galderei erantzunez, Garamendik adierazo dau ABEE-UTE-ak esleipeneko pleguetan jarten dana bete dauela gai horri jagokonez. Bertan esaten da ezin dala leherketarik egin 00:00etatik 08:00etara tunel bakotxaren ahoen lehenengo 100 metroetan. Gune horretatik aparte enpresak hondeaketarako teknika hori erabili ahal dau, baina diputatu andreak jakinarazo dauenez, ABEE-UTE-a eta Abadiñoko udala “ahozko” akordiora heldu dira, neurri hori “300 metrotaraino” zabaldu daiten, gaueko hamabietatik goizaldeko seiak arte, Gaztelua auzoko biztanleen aldetik jasotako kexak kontuan izanda.

SEINALE BERTIKALAK TXIRRINDULARIEK GEHIEN ERABILTEN DITUEN ERREPIDEETAN

Beste alde batetik, batzordeak aho batez onartu dau PP taldeak aurkeztu dauen eta EAJ-PNV-ren zuzenketa-eskea jaso dauen Arauz Besteko Proposamena. Proposamen horren bitartez, Batzar Nagusiek eskaera egiten deusie Aldundiari, txirrindulariek “gehien erabilten dituen” foru errepideetan seinaleak jarteko hartu beharreko neurriak hartu daizan. Hasera batean, PP-ren proposamena Bilbo-Karrantza zatian –BI-3651, BI-3602 eta BI-630 errepideetan– zentretan zan, eskualde horretako txirrindularien alkarteek egindako eskaria jasoz. PP taldeak jeltzaleen zuzenketa-eskea onartu ostean, asteburuetan txirrindulariek erabilten dituen foru sareko ibilpide “guztietara” zabaldu da, eta ez bakarrik aitatutako udalerrri bien artean dagozan zatietara.

Itziar Garamendi foru diputatu andreak eta Nerea Ahedo EAJ-PNV-ko ordezkariak ganerako taldeen aurrean jakinarazo dabenez, Aldundia badabil txirrindulariek gehien erabilten dituen errepideetan seinale “bertikalak” instalaletan. Holan, 2014. urtean lehentasuna emongo jako seinale horreek “1. gunean” jarteari. “Seinale horreek ikusi daitezke zaborduko N-634 errepideko Erletxe-Zaldibar zatian eta N-640 errepideko Lemoa-Zeanuri tartean”, Ahedok baieztu dauenez. Diputatu andreak esan dauenez, 2015. urterako seinale horreek Lurraldeko bide sareko 2. eta 3. guneetara zabalduko dira. EAJ-PNV taldearen zuzenketa-eskea onartzeko, Jesús Isasi batzordekide popularrak, Karrantzako eskualdea sartzen dan 3. guneari lehentasuna emotea eskatu dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

NOTA DE PRENSA

Garamendi informa que su departamento ha ejecutado ya el 73,2% del presupuesto

Bilbao, a 3 de octubre de 2014

La diputada foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, ha comparecido hoy a petición del PP para informar del estado de ejecución presupuestaria de su departamento y para dar cuenta también de la situación actual de varias obras viarias que se materializan en distintos puntos del Territorio. En cuanto a la materialización de las partidas incluidas en los presupuestos de 2014, la responsable foral ha indicado que “a 15 de septiembre” se ha ejecutado un “73,2%” de lo presupuestado y se ha autorizado un gasto que alcanza los 289 millones de euros que vendría a elevar este porcentaje hasta el 94,03%.

AMOREBIETA-MUXIKA

Por otro lado, Garamendi ha informado del estado en el que se encuentran las obras del eje Amorebieta-Muxika y de la carretera del alta capacidad Gerediaga-Elorrio. Respecto a la primera, ha dicho que “a finales de agosto de 2014, el avance de las obras superaba el 46% del presupuesto vigente”. Ha subrayado que el estado de las obras es el “habitual en cualquier infraestructura lineal en su fase final” y que se está trabajando en “todos los tajos”, desde el inicio del trazado (conexión AP-8 y N-634) hasta el entronque con la carretera BI-635 en Muxika. En cuanto a los plazos, ha confirmado que “se están cumpliendo razonablemente”.

Respecto a las obras a cielo abierto, Garamendi ha anunciado que las explanaciones están en su fase final y está previsto que “si la meteorología del otoño e invierno lo permite”, la ejecución finalice en primavera de 2015. Y en cuanto a los túneles de Urdinbide (2 tubos de 538 metros), se ha excavado ya “el 79% de la fase de avance en ambos tubos y el 58% de la fase de destroza”. Espera que las galerías estén finalizadas en “primavera o verano” del año que viene.

Garamendi ha informado a la comisión de Obras Públicas y Transportes de la Cámara vizcaína de que este eje Amorebieta-Muxika de 3,5 kilómetros, ha contado con dos modificaciones respecto al proyecto inicial: una adaptación del plan de trabajo de los tajos debido a la meteorología adversa de 2013 “sin afectar al plazo del contrato ni al precio de ejecución”; y otra, que ha supuesto un aumento del coste de los trabajos cifrado en un “7,08%”, para la creación de una nueva rotonda en el acceso a Amorebieta por la calle Karmen y la ampliación de otra rotonda prevista.

GEREDIAGA-ELORRIO

En cuanto a la Gerediaga-Elorrio, la diputada ha indicado que en verano se ha trabajado “en casi todos los tajos” y que los trabajos en su tramo final, en Atxondo y Elorrio, van a comenzar “en los próximos días”. Garamendi ha señalado que esta obra está cumpliendo también “tanto los plazos parciales como los finales”. Estima que esta vía de alta capacidad alternativa a la N-636, pueda estar en servicio en “verano de 2016”, después de que se hagan las correspondientes



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

comprobaciones de seguridad en los túneles (dos tubos de 2 kilómetros en total) , según marca la normativa foral.

Precisamente, en la excavación se concentra gran parte del esfuerzo de la UTE que está trabajando en “6 frentes” al mismo tiempo. “Se ha excavado el 77% de la fase de avance”, lo que vendría a ser “el 98% del túnel I” (de 594 metros) y “el 65% del túnel II” (de 1.140 metros).

A preguntas de PP y EH Bildu, que le pedían aclaraciones respecto a la autorización de las voladuras nocturnas en estos túneles, Garamendi ha señalado que la UTE ha cumplido con los pliegos de adjudicación en lo que respecta a esta cuestión, que establecen que no puede haber detonaciones entre las 00:00 horas y las 08:00 horas en los primeros 100 metros de cada boca de túnel. Tras dejar claro que la UTE podía utilizar estas técnicas de excavación una vez que la maquinaria avanzaba más allá de estos 100 metros, la diputada ha informado de que la empresa y el ayuntamiento de Abadiño han llegado a un acuerdo “verbal” para que esta medida se extienda hasta los “300 metros” y entre las doce de la noche y las seis de la mañana, ante las quejas recibidas por los vecinos del barrio de Gaztelua.

SEÑALIZACIÓN VERTICAL PARA LAS VÍAS MÁS UTILIZADAS POR LOS CICLISTAS

Por otro lado, la comisión ha aprobado por unanimidad una Proposición No de Norma del PP, enmendada por el PNV, por la que las Juntas Generales instan a la Diputación a que adopte las medidas oportunas para señalizar las carreteras forales “más utilizadas” por los ciclistas. Inicialmente, la propuesta del PP incidía en el tramo Bilbao- Karrantza - la BI-3651, la BI-3602 y la BI-630 – recogiendo una demanda de una asociación de ciclistas de esta comarca. Después de que este grupo aceptara una enmienda jeltzale, la demanda se ha extendido a “todos” los recorridos de la red foral de carreteras frecuentados por los cicloturistas, los fines de semana, no sólo a los tramos viarios comprendidos entre los dos municipios mencionados.

La diputada foral, Itziar Garamendi, y la representante del PNV Nerea Ahedo, han informado al resto de grupos de que la Diputación está instalando ya señalización “vertical” en las carreteras más frecuentadas por los cicloturistas. Concretamente, durante 2014 se priorizará esta señalización en el “área 1”. “Ya se puede ver en los tramos Erletxe-Zaldibar de la N-634 y Lemoa-Zeanuri de la N- 640”, ha confirmado Ahedo. La diputada ha asegurado que para 2015 esta señalización se extenderá a las áreas 2 y 3 de la red viaria del Territorio. El apoderado popular, Jesús Isasi, ha puesto como condición para aceptar la enmienda del PNV que la Diputación priorice el área 3 donde se incluye la comarca de Karrantza.